

Altxa gaitezen!

40 urteren ondoren, egin dezagun posible!

Iruñean, 2022ko maiatzaren 13an



Altxa gaitezen! 40 urteren ondoren, egin dezagun posible!

Duela 40 urte, eliteek bere eredu politiko, sozial eta ekonomikoa erabakitzeke eztabaida eta ahalmena lapurtu zizkioten Nafarroako gizarteari. Elite horien mitoak dio Nafarroa Espainiaren zati bat dela, eta ez edozein zati, gainera: zati garrantzitsuenetako bat da. Eta Espainiari lotuta dagoela Nafarroak berak hala nahi izan zuelako eta hala nahi duelako gaur ere.

Egiazki, Nafarroak ez zuen ezer erabaki. Nahi duzuen bezala aurkezten ahal diguzue Foru Hobekuntza, baina Espainiako Konstituzioaren menpeko autonomia estatutu bat da, besterik ez. Hala ere, beste batzuk ez bezala, gure estatutua ez da inoiz erreferendum baten bidez onartu.

Foruaren Hobekuntza mito horren jantziarekin mozorrotu den fenomeno politiko bat da. Hobekuntzak argi eta garbi erakusten digu Nafarroako elite erreakzionarioek historian zehar izan duten portaera; herriaren borondatearen eta beharren gainetik Nafarroa Espainiako oligarkiaren menpeko eremu bat bihurtzeko duten interes berezia. Marko politiko guztiak apostu ekonomikoak dira, eta Nafarroan ezartzen zaiguna patronal nafarraren zutabe ekonomikoak oinarritzera dator, UGT eta CCOO-ren traizio politikoarekin. Eta zutabeok eusteko eta korrante askatzaileak eragozteko, Nafarroa espainiarra, neoliberal eta katolikoa kuestionatzen duen eskubide demokratiko, kultural eta linguistiko eta sozial oro mugatzen da. Abortoarako eskubidearen gauzatzea ukatzea hamarkadetan zehar osasungintza publikoan, milaka pertsonak euskara ezagutzeko eta erabiltzeko eskubidearen urratzea, herritarren partehartze politiko errealerako eta erabakitzeke eskubidearen murriztea eta abar... ez dira kasualitatez gertatu.

Nafarroan ez zen haustura demokratikorik izan. Frankistek bultzatu eta inposatu zuten erreforma, urduri baitziren hainbat eskakizun –besteak beste, lan hobekuntzak, askatasun sindikalak, demokrazia osoa eta autodeterminazio eskubidea– aldarrikatzen zituen Nafarroako langile-klasearen bultzada ikusita. Hemen larderia, bortxa eta indarkeria erabili zituzten. Estatuarekin zerbait negoziatu zelako itxurak egin zituzten, baina akordioa Madrilen itxita zeukaten. Alderdi guztiak baztertzea erabaki zuten, UPN, PSOE eta UCD izan ezik. Nafarroako Parlamentuaren % 33 kanpo utzi zuten eta erakunde sindikalak gutxietsi zituzten. Politikari gutxi batzuek sasiko autonomia estatutu bat aurrera eramane zuten.

Foruaren Hobekuntza proposamen baztertzailen baten emaitza izan zen. Ez da garai hartako errealitate sozio-politikoaren adierazgarria; izan ere, garai hartako Nafarroako gizartean oso hedatuta zegoen instituzioak gainerako euskal lurraldeekin partekatzeke gogoa.

Nafarroako Langile Mugimendua “trantsizio” garai batean zegoen. Alde batetik, estatuko sindikatu batzuk (CCOO-UGT) frankismoaren azken urteetan eta trantsizioaren hasieran sortu zen langile mugimendu indartsuaren autoantolaketa eta kontrabotere asmoak hutsaltzen saiatzen ari ziren. Bestetik, ezker sindikaleko zenbait korrante (SU, CSUT, LAB,...) CCOO eta UGT sindikatuek bultzatzen zuten instituzionalizazioari eta erreformismoari aurre egiten saiatzen ziren. Gainera, bi sindikatu horiek PSOEek gainerako euskal lurraldeekiko harremanen auzian erakutsi zuen «metamorfosiaz» kutsatuz joan ziren, eta hala, Espainiako Konstituzioarekin eta Nafarroako Hobekuntzarekin sortu zen esparru juridiko-politiko onartzen bukatu zuten. Euskal Herriaren izaera nazionalari uko egitea sistema ekonomiko eta sozial bidegabea onartzearen eskutik etorri zen.

Gaur, LAB sindikatuak bere betiko jarrera berresten du, haustura demokratikoaren jarrera, 78ko Erregimenaren aurkako jarrera. Berrogei urte igaro ondoren, Hobekuntzak utzi digun saldoa defizitarioa da. Hala da demokratizazioari dagokionez, baina baita bizi- eta lan-baldintzei dagokienez ere. Nafarroak behar dituen aldaketa sozio-ekonomiko,

kultural eta politikoei ekiteko itzaropenak urrun daude oraindik. Eta, urte horien ondoren, honako hau da Nafarroako lan harremanen egungo egoera:

- Begien bistakoa da Nafarroak lan eta gizarte politika propioak erabakitzeko ahalmen mugatua duela. Lan arloko legeria eta enplegu politikak Estatuaren eskumenak dira, politika aktiboak izan ezik, baina azken horiek garrantzi txikia dute enplegu politikak egiteko orduan. Beste horrenbeste gertatzen da pentsioekin eta langabezia-prestazioekin. Fiskalitateari dagokionez, Nafarroak eskumen handiak ditu bere fiskalitate propioa arautzeko, baina ez du erabateko subiranotasunik. Izan ere, zeharkako zergak, hala nola BEZa, Estatuaren eskumenean daude. Herritar guztiei bizitza duina bermatzeko, oinarritzkoa da lan harremanak eta gizarte babeserako sistema erabakitzeko eskumena izatea. Ezin da autogobernuaz hitz egin autogobernuaren maila guztiz mugatua bada eta gai horietan eskumen osoa ez badago. Hobekuntzaren egiturazko defizitari honako hauek gehitu behar zaizkio: transferentzia-prozesua agortua dago; inposatutako lan erreformak; negoziazio kolektiboaren estatalizazioa; hainbat legeren inpugnazioa Konstituzio Auzitegiaren aldetik; oinarritzko legeen nahitaezko ezarpena; Espainiako Konstituzioaren 135. artikulua aldaketa; eta CCOO eta UGT sindikatuen, CEN patronalaren eta Nafarroako Gobernuaren arteko ekintza-batasuna.

- Goian aipatutako ekintza-batasunak usurpatu egin ditu ordezkariak sindikala eta Elkarriketa Soziala, nahiz eta une honetan ordezkariak sindikalaren % 50 baino gutxiago izan. Horrela, Nafarroako sare ekonomikoaren eta Nafarroako langileen beharrei kasu egin gabe, beren interes politikoak lehenetsi dituzte oraingo estatu-ereduari eta beren gizarte- eta lan-harremanen esparruari eusteko. Horren ordain gisa, azken hamarkada hauetan mantendu egin da ordezkariak sindikal eta parte-hartze instituzional erresebatuaren monopolioa. 2015ean erakundeetan gertatutako aldaketaren ondoren eta UGTk eta CCOOk azken hauteskunde sindikaletan izandako babes galeraren ondoren klientelismo-egitura hori neurri batean desmuntatu bada ere, Nafarroako enpresa handiengan, Volkswagenean, bere horretan irauten du.

- Areagotu egin dira Nafarroako erakundeek pandemiaren, gerraren eta sistemak eragindako krisien ondorio sozial, ekonomiko eta politikoei aurre egiteko dituzten egiturazko gabeziak.

- Europar Batasunarekiko aldea handituz doa hainbat arlotan: enpleguaren kalitatea, gizarte-babesa, osasun sistema, hezkuntza...

- Zerbitzu publikoen kalitatea pixkanaka galtzen ari da, baita sektore publikoak ekonomian duen pisua ere. Inbertsioak eta politika ekonomikoa planifikatzeko ahalmena ere beherantz doa. Etorkizun zaila Nafarroako ekonomiarentzat, Administrazioak bultzatutako produktibitate-eredua kontuan hartzen badugu.

Horixe da 40 urte betetzen dituen Hobekuntzaren benetako balantzea. Patronalaren eta Nafarroako elite ekonomikoen neurriari egindako sasi-autogobernu aldakor bat dugu: zentralista agertzen da langile-klaseari eskubideak ukatu nahi zaizkionean, eta foralista Estatuaren eta elite erreazionarioen interesak bere horretan mantendu nahi direnean (fiskalitatea, esate baterako).

Behar-beharrezkoa da egungo indar korrelazioa aldatzea, kontzientzien eraldaketan aurrera egitea eta agerian jartzea funtzionamendu modu hori eta politika horiek desagerrarazi behar direla. Hauteskunde sindikalen emaitzak erakusten ari dira gero eta langile gehiagok Hobekuntzaren eredu politiko eta sozio-ekonomikoa gainditzearen alde egiten dutela.

Ez da gertaera ustekabekoa edo berezia, baizik eta ezarritako markoarekin bat datorrena, sistema instituzional nafarrean eman den ustelkeria estrukturala. Erregimen honetako alderdi politikoez, CCOO eta UGT sindikatuek, CEN patronalak eta bere komunikabideek eta bestelako aliatuek lau hamarkadetan zehar diru publikoaz (eta Foru Hobekuntzatik eratorritako instituzio eta entitateez, CAN barne) egin duten arpilatzeak muga guztiak gainditu ditu. Nafar guztien dirua aberaste pertsonalerako y egitura politiko, sindikal, patronal eta mediatiko horien guztien zilegitasun gabeko finantzaziorako erabiltzea, ezarritako eredu elitista eta antidemokratikoaren berezko ezaugarria da. "Txiringito forala" eraisteko azken urteetan hartutako neurriak positiboak dira, baina 82an ezarritako ereduaren erabateko berrikuspena beharrezkoa da.

Etorkizunari begira, Nafarroak tresna berriak behar ditu. Erakundeen burujabetzarako proiektu sendo bat behar dugu datozen egiturazko erronka handiei aurre egiteko (klima-aldaketaren aurkako borroka, energia-erlaldaketa, bilakaera demografikoa eta zaintzaren eredu asistentzial berria), eta, orobat, digitalizazioa eta adimen artifiziala produkzio-sarean ezartzeak ekarri dituen erronkei aurre egiteko. Erronka horiek fase-aldaketa baten testuinguruan kokatu behar ditugu, non geopolitikak eta desglocalizazioak azken hamarkadetakako joerak alda ditzaketen. Nafarroak tresna berriak behar ditu, herri gisa, gure lurraldeko gehiengo sozialaren eskakizun sozial, politiko, linguistiko eta kulturalak bermatu eta ahalbidetzeko.

Ezinbestekoa da, beraz, eztabaida prozesu zabal eta mugarik gabea irekitzea Nafarroako eredu sozial, ekonomiko eta instituzionalari buruz, eta Espainiako Estatuarekin eta gainerako euskal lurraldeekin izan nahi ditugun harremanei buruz. Gizarte eta lan eremuari dagokionez, ezinbestekotzat jotzen dugu lan harremanetarako eta gizarte babeserako esparru propioa eratzea, bai eta lan kode eta gizarte segurantza propioa ere. Espazio sozio-ekonomiko propioa, eskumen osoekin eta gizarte eta lan arloko gaiak erabakitzeke gaitasunarekin. 40 urte hauetan argi geratu da lan harremanen estatalizazioak eskubideak galtzea dakarrela; eta, alderantziz: hitzarmen propioak edukitzea (esate baterako, Esku-hartze Sozialeko hitzarmen berria eta egoitzen sektorerako erreklamatzeko duguna) eta lege propioak edukitzea (esate baterako, azpikontratazio publikoetan ezarritako klausula sozialak) onuragarria dela Nafarroako langileentzat.

Duela 40 urte eztabaida lapurtu ziguten. Orain, nafarroari dagokigu gure etorkizuna erabakitzea, askatasunez eta demokratikoki. Defizit historiko hori zuzentzeko unea iritsi da; Nafarroako herritarrei hitza eta botoa emateko unea da.

Kapitalismoan langileok ez dugu etorkizunik. Beste eredu ekonomiko eta sozial baterantz abiatu beharra dugu. Aldaketak behar ditugu, bai ekonomian, bai eredu instituzionalean. Eta hori guztia posible egin behar dugu hemen, Nafarroan, Euskal Herrian. Kapitalismoari alternatiba batekin erantzutea herriz herri jorratu beharreko gai globala da. Hori egin ahal izateko, Nafarroak bere subiranotasuna berreskuratu behar du. Madrilan posible ez diren aldaketak Nafarroan gauzatu ahal izateko. Altxa gaitezen! 40 urteren ondoren, hemen jarraitzen dugu. Egin dezagun posible!

Iruñean, 2022ko maiatzaren 13an.